

## EUSKAL LITERATURARA HURBILTZEKO IKUSPEGI FUNTZIONALA HOBETSIZ

Ana M<sup>a</sup> TOLEDO LEZETA

Aita Luis Villasante euskaltzainburu ohiak jakintza-alor bat baino gehiago landu du urte luze emankorretan barrena: teologia, gramatika, soziolinguistika... eta baita euskal literatura ere. Euskal literaturaren ezaguerarako esku-liburu izan da *Historia de la Literatura Vasca* eta hamaika lan monografikotarako abiapuntu eta langai-emaile.

Euskal literaturari buruzko ezaguera zabaldu duen liburu honi omenaldi xumea eskaini nahiz, literaturara hurbiltzerakoan ikuspegiak hartzen duen garrantzia hartuko da mintzagai.

Erizpide-azalpena eginaz edo egin gabe edozein kritika-azterketetan edo literaturaren edozein historia planteatzerakoan, literaturari buruzko ikuspegi bat nahitaezkoa da, ez dago ihes egiterik, ez dogmatzat hartzerik hartutako ikuspegia. Beraz, egindako azterketa kritikoak edo historiak lekua eta zentzua irabazten dute beraienezat eraiki diren zutabeen barnean.

Zinez, gaia jorratzeko aukeratutako ikuspegia elementu erabakiorra da berbaldi orotan. Nolanahi ere, beharbada, pisu handiagoa hartzen du berbaldia erai-kiko duten oinarriak emanda ez datozen esparru haietan, lehen-lehenik berbaldia den eraikuntza horren oinarriak ezarri eta eraiki behar dituzten jakintza-eremutan, literaturari buruzkoarena kasu. Eta ez bakarrik literaturaren gainean eratzen den ihardunean, baita literatur ihardunean bertan ere; ikusi besterik ez dago, esate baterako, ikuspuntuak hartzen duen garrantzia kontaktaren alorrean.

Oraindik argitaratu zaharra ez den liburu batean honela irakur zitekeen:

«que a veces las ideas tienen una cierta autodeterminación y que se desprenden del contenido histórico originario y siguen funcionando con contenidos a veces contradictorios con los del momento de origen»<sup>1</sup>.

---

<sup>1</sup> JIMENEZ BLANCO, José: «Sociedad, Participación y Violencia» in *Hombre y Política. Perspectivas socio-políticas actuales*, Universidad de Deusto, Bilbao, 1988, 92. or.

Hainbat jakintza-eremutarako baliagarria izan daitekeen ideia hau ez zaio arrotza literaturari buruzko berbaldiari. Historian barrena literaturaren gainean eraiki den berbaldia literaturari buruzko ikuspegi desberdina erakusten joan da eta hartutako ikuspegia izan da giza-iharduera honen mugak jarri dituen, denboraren harian mugarriak lekuz aldatzen joateko giltza eta lizentzia eskuan izan duena.

Aro bakoitzak jakin du zer den literatura edo-ta zein tramankulurekin ezarri harreman literarioak. Garai bakoitzak jakin du bere bizitza literarioaren esparruan hesiak jartzen, baina hesi horiek ez dira izan hesi finkoak, mugikorak baizik.

Aldi bakoitzeko hartzaileak zedarritu ditu bere behar desberdinak ase-tzeko barrutiak, aldi bakoitzeko poetika eta erretorikak sistematizatu dute, zehaztasun handiago edo txikiagoarekin, literaturaren alorra, hartzaileak uste zuenarekin bat etorri ala ez, produkzio literarioak eskaintzen zuenari hertsiki lotuz ala ez, baina aldatetari lotua dagoen sistematizazioa da eta azken batez, aurretiaz ezarritako oinarrien barnean, ulertu behar den sistematizazioa: ez abstraktuan, baizik eta sistematizazioari jarri zaion markoaren barnean, marko honek ezartzen dituen koordenadei atxekirik, marko honek erakusten duen ikuspegiaren baitan. Honenbestez, literatur gertaera autodeterminatuz doan gertaera moduan joko dugu, eta ez hori bakarrik, baizik eta bilakaera-modu biologiko batetik urrun, aldiberean zedarriketeta-modu desberdinen menpe egon den gertaera legez, zedarriketeta-modu horietako bakoitzaren balioa ezartzen dituen oinarrien barnean ulertu behar delarik.

## 1. Literatur gertaerari buruzko gogoeta

Literaturaren teoria-kritiken historiei edo-ta historiografia literarioari gainbegirada bat botatzea aski da honetaz ohartzeko: gertaera literarioari buruzko ikuspegia aldatetaren menpe egon dela. Aipatutako eremu hauek zabaltzen badiugu, berriz, oraindik areagotu egin daiteke baieztapena, izan ere, sistematizazioan horiek ziotena ez bait da beti bat etorri, ez idazle guztiek jarraitutako bideekin, ezta bizitza literario indartsuena zuten tramankuluek erakusten zutenarekin ere.

Gauza jakina da literatura den objektu material horretara hurbiltzeko talai deberdinak elkarri hertsiki loturik daudela: teoria, kritika eta historia objektu formalak bereziko ditu, baina ez dute erdiesten beren artean independentziarik; aitzitik, batak bestearen beharra du, batak bestea baldintzatzen du. Produktu batzuen bizitzak sortu dituen lan-eremuak dira, produktu horiek sistematizatu nahiak sortutakoak, hain zuzen ere. Produktu, hauen bizimodua eta berauei buruzko berbaldia etengabeko harremanean egon dira eta daude, nahiz eta harreman hauek ez diren eraiki adostasunaren gainean.

Harreman hauei ere leku egiteak eta konplexutasun honen barnean ikustek izenburuan planteatu dugun gaia oso luze eta zabal joko luke. Horregatik gaia literaturari buruzko gogoetetara zedarrituko dugu, gogoeta hauetan bertan lerro nagusitara mugatuz.

Literatur gertaerak beti lagun izan du berari buruzko gogoetaren bat. Gogoeta xume horietan bertan hasten da bere esparruaren zedarriketeta-lana eta hone-la, historikoki bertsoaren bidez adierazitakoari murriztu izan zaio, hitz-kateak hartzen duen eraketa-modu bati lotuaz, hain zuzen ere, literaturaren eremua edo hitzaren zentzu etimologikoari atxekitu izan zaion aldirik ere ezagutu du.

Dena den, literaturari berari buruzko gogoetak ez du historikoki lilura handirik sortu. Aristotelesen *Poetika* fruitu goiztiarrak ez zuen eragin gerora literatur gertaera deskribatzeko zaletasun handirik, idazleari ezartzen zaion arau eta erregelen azalpena eta produktu literarioak sailkatu beharrera lerratuko da literatur eginkizunari buruzko azterketa; aitzindariaren begi zorrotzak ikuskatu eta landu zuen alderdi arauemailearen ezpalari lotu zitzaizkion. Mendeen joanean Aristotelesen *Poetikaz* egiten diren berrirakurketetan bere baitan zeraman alderdi deskribatzaileaz erantzten doaz eta Horazio, Quintiliano etab.en lumetatik jalgitzen diren sistematizazioak gero eta aginduzkoagoak eta produktu literarioen sailkapenekiko zaletasun handiagoa erakusten dutenak dira. Idaztea, idazketa-modu ona irakasten duten arau batzuk norberaganatzea besterik ez da; literaturaren alderdi erabilgarria azpimarkatzen da; eta estilo eta generoak arautzen... Arau eta erregelek gertaera literarioaren deskripzioa itotzea dakarte. Aristotelesen ondoko poetika eta erretorikak idazteko ofizioa ikasteko errezeta-multzo bihurtuko dira, errezeta ikasi ezkeron edonork idatz dezake. Hori bai, ofizio honek bere legeak ditu eta lege horiek orpoz-orpo jarraitzeak dira.

Berez gogoeta bat baino gehiago «egin behar den moduko» literatura gartzeko bide-erakusleak dira. Idazle eta idazlanen gainetik indarrean dauden prezeptibak, eztabaiden gainetik ikuspegi «ofiziala» eta landua erakusten dutenak dira. Nolanahi ere, idazleak ez zitzaizkien beti otzan-otzan lotu aginduek ezarritako bide estuei; praktikan idazle ugari beren idazlanen bidez literaturaren autonomia, berehalako helbururen bati makurtzen ez zaion ariketa-modua izatea, askatasun sortzailearen izenean mugak haustea etab. aldarrikatu zuten.

Eztabaidak eztabaida ezer gutxi aurreratzen da literatur gertaeraren izaeraren ezagueran, harik eta mende honen hasieran Errusiar Formalistek berplanteatzen duten arte. Hauek izaera aztertu nahi dute. Jarritako helburu eta bideek gertaera literarioaren berezitasuna ezartzera eramango ditu eta literaturaren autonomia aldarrikatzera<sup>2</sup>.

<sup>2</sup> Ik. besteak beste, *Teoría de la literatura de los formalistas rusos*, Editorial Siglo XXI, México, 1980, 4. argitalpena, (Tz. Todorov-ek prestatu eta aurkeztutako antologia). ERLICH, Víctor: *El formalismo ruso. Historia-Doctrina*, Editorial Seix Barral, Barcelona, 1974. GARCIA BERRIO, Antonio: *Significado actual del formalismo ruso*, Editorial Planeta, Barcelona, 1973.

Mezu-mota honen oinarriak eusten dituzten ezaugarri bereizleak eraiki nahian xahutuko dute indar ugari. Literarioa dena eta ez denaren artean ezarri nahi izan zuten muga zehatzak, berbaldi-modu literarioari eman nahi izan zioten kategoria sustantiboak, egintza honen ezaugarri esentzialak ikertzera eraman zituen, beste edozein elementurekin gorde zitzakeen harremanei jaramonik egin gabe, harreman orotatik abstraituz: berbaldi literarioa ez da ikusten zeinuz beteriko mundu batean. Mugak jarri behar zaizkion zeinu berezi bat besterik ez da.

Harrezkero makina bat saio egin da izaera berezi hori mugatzeko, estetika espekulatibo batera jo gabe, literatur mintzairaren berezitasunak ezartzeko, baina azken aldi honetan, alabaina, dirudienez, ahalegin hauek ez dute ezagutzen garai bateko hedapenik.

Gure gaurko mundua arras desberdina da, baina mende honetan barrena egindako literaturaren sistemaren azterketek, zinez, ez dute erdietsi, ez Aristotelesen *Poetikaren* bizitza luzea, ezta honek lortu zuen itzal besterekin banatu gabea ere. Oraindik Errusiar Formalismoa eratu zuten elkarte txiki konformagaitz horien sorreraren mendeurrenetik hamarkadetara bagaude ere, eraberrikuntza sakonak heldu dira formalista hauen zenbait oinarriren alderdi funtsezkoetara: batetik, literariotasunaren azterketari eman zioten izaera ontologikoa pisu espezifikoak galduz doa ikuspegi fenomenologikoago baten alde; bestetik, hartzailagoaren papera lekua irabazten doa, bereziki eta soilik literatur komunikazioaren testu-alderdian oinarritzen ziren azterketen aurrean.

Ez du inolako zentzurik oinarri ontologiko soilen gainean eraiki nahi zuten eta, oraindik orain, nahi den literaturaren zientzia baterako ahaleginak gutxiesteak. Ez Errusiar Formalisten ahaleginak, ez gerora ildo honetatik egin diren beste batzurenak; izan ere, beste zenbait alderdi alde batera utzita, bakar-bakarrik testu literarioa eratzen duen hitz-ore horren azterketara ezbairik gabekoa den ekarria egiten bait dute.

Edozein modutan, literaturaren ikerketa berau eratzen duen hitz-orera mugatu eta mintzaira hau gainontzeko mintzairetatik zehatz-mehatz zedarritzea bilatzen zuten ikuspegi haiek, maila batean behintzat, helburua erdiestera ez dira heldu, hala ere, guztiz onuragarriak eta probetxuzkoak izan dira. Itxurazko kontraesan honen bidez adierazi nahi dena honako hau da: helburua erdiestera ez dira heldu ez dutelako lortu zentzu absolutu batean literatur mintzairaren ezaugarriak mugatzea, guztiz onuragarri eta probetxuzkoak izan dira zentzu operatibo batean literatur gertaera ezagutzen lagundu dutelako eta literaturak sortutako mundua mundu autonomo legez jo zedin egindako ekarriagatik.

Hala ere, bada azken aldi honetan, gainontzeko berbaldiak/berbaldi literarioaren arteko desberdintasunen arteko ustezko muga esentzialaren hausketa proposatu duenik. Berbaldi hitzaren sustantibotasuna aldarrikatu duenik eta literario hitzaren kategoria adjetiboa azpimarkatu. Berbaldi literarioak bereak eta bereak bakarrik litzuzkeen ezaugarrien bilaketan saiatu ordez, abiapuntutik bertatik ezaugarri bereizle horiek ukatu eta berbaldiaren esparruaren barnean gainon-

tzeko berbaldi-motetatik bereiztea egokiagotzat jo duenik. Hots, berbaldia da mugak ezartzen dituen, kontzeptu bat beste batetik bereizten duen kategoria sustantiboa eta kalifikazioak jasotzeko gauza da bakarrik, berbaldi-mota batzuk besteengandik bereziko dituzten kalifikazioak jasotzeko, baina eremu horren barnean. *Literariotasunaren* izaera sustantiboa *berbaldi literarioaren* ezaugarri adjetibora aldatu da, «ezaugarri berezi batzuen nagusitasunaz» aditzera ematen den kualitatera<sup>3</sup>.

Bada, baita ere, beste joera bat, berbaldia bere baitan aztertu ordez hartzaile-arekiko harremanean aztertzea proposatzen duena, hartzaileak berbaldiaren aurrean hartzen duen jarreraren esku utziz auzia: *Errejimen literarioan* literario honen kalitatea testu eta irakurlearen artean gauzatzen den harreman-moduak erabakitzen du<sup>4</sup>.

Zalantzarik gabe, azken urte hauetan zabaldu diren bide hauetatik berbaldia-ri berbaldi literario legez jasotzeko aukera handiagoak eskaintzen zaizkio.

Beraz, literatur mintzairari buruzko ikuspegia aldatzen joan da historian barrena eta aldaketa honetan nabarmena da nola hurbilpen-modu ontologiko batzutatik hurbilpen-modu fenomenologikoetara egin den ibilbidea. Azken ikuspegi hauentzat ez du axola zerk egiten duen berbaldi bat berbaldi literario, zertan datzan literariotasuna, zerk bereizten duen berbaldi literarioa gainontzeko berbaldietatik, nola berbaldiaren funtzionamendu-moduak, hartzaileak berbaldiaren aurrean hartzen duen jarrerak, hartzaileak berbaldiaren aurrean martxan jartzen duen irakurketa-moduak...

## 2. Euskal literatura gogoeta hauen argitan

Euskal literatur gertaerak bere ingurukoenen inspirazio-iturri berberak izan ditu, hala lehengaiz hornitzaerakoan, nola lehengai hauek antolatzaerakoan. Ikasketamailako benetako *koinea* eratzera iritxi zen mundu greko-latindar horretan daude iturriak, inguruko horienak bezalaxe, baina horien literatur iharduera arautzen duten poetika-erretoriketara jo arren, ez da iristen iturri horiek eskaintzen dituzten bide guztiak ibiltzera.

Mugimendu literarioak heltzen dira, euskaldunak, besteak beste, mugimendu hauen bidez adierazten ditu munduaren aurrean kokatzeko modu desberdinak, bizitzaren aurreko jarrera desberdinak, ideia eta gustu literarioen aldaketak... baina ez die itxura ematen inguruko literaturak legez, edo hauek zabaldu zituzten ildo guztietan ibiliz.

<sup>3</sup> VAN DIJK, Teun: *Estructuras y funciones del discurso*, Siglo Veintiuno Editores, Madrid, 1980.

<sup>4</sup> Ik. MARGHESCOU, Mircea: *El concepto de la literariedad. Ensayo sobre las posibilidades teóricas de una ciencia de la literatura*, Taurus Ediciones, Madrid, 1979.

Gerora «hutsune» hauek biziki garrantzizko bihurtu dira; izan ere, dotrina formalista eskuan, ia mende honetararte euskal literaturarik ez dela izan, edo behintzat emaitza urriak erakutsi dituela, baieztatu beharko bait litzateke. Funtsean, bi zutaberen gain eraikitzen dira baiezipen horren oinarriak: batetik, literatur tramankuluaren autonomiaz Formalismoak egin zuen aldarrikapenak, eta ikuspegi honen geroz eta hedapen eta indar handiagoak —bidenabar esanda, literaturari mesede besterik egin ez dion aldarrikapenafikzioaren esparrua eraiki du autonomia hori emateko gaitasuna duen esparru moduan; bestetik, gure koordinada geografiko-kulturaletan, mundu ida-tzia eta landua bateratu egin dira, bata besterekin bakarrik joan daitekeen bikote moduan itxuratuz. Ez da XX. mendek egin duen baterakuntza, aitzitik, sustrai sakonak dituena, mende askotako tradizioa joan bait da eraiki-tzen aipatu baterakuntza.

Literaturaren alorrean, mende honetan behintzat, honako ekuazio honek funtzionatu du: mundu autonomo landua=fikzio idatzia. Ibilera historikoari so, berriz, euskal literatura ekuazio honen menpe ez dela eraiki nahiko nabaria da. Jakina, ekuazioa ibilera historiko hori baino berankorragoa da, baina jarritako ekuazioaren legezketasuna erakusten zuten bitartean euskal literatura inguratzen zuten haiek, honek berari ez zitziola gehiegi egokitzen azaltzen zuen.

Dena den, literaturaren autonomia ez da zentzu absolutu batean Errusiar Formalisten aurkikuntza, hainbat literaturgilek aurkitua zuen Arteagatiko Artea bera aldarrikatu zuten haiek baino lehenago, nahiz eta Errusiar Formalistak izan ziren, literaturari buruzko ikerketen eskola berezi legez, sistematizatu zutenak.

Euskal literatur produkzioari gainbegirada bat botatzea aski da fikzio-mundu landua apenas eraiki duela ikusteko: herri-antzerkiak harantza, herri-kontaketaz harantza eta herri-lirikaz harantza ezer gutxi gelditzen da azken mende honen hasiera arte. Honenbestez, fikziozko izaera eta mundu idatziko kultura lotzen zaizkion neurrian literatur gertaerari ez da harrigarri horrelako baiezipenak egitea.

Nolanahi ere, euskaldunaren historiak erakusten du mezu batzuk literario moduan jaso dituela, nahiz eta mezu horietako asko euskal literaturaren historietatik kanpo gelditu diren, hauek mundu idatziari egin diotelako tarte zabalagoa eta, orohar, herri-literatura deitu izan dena historia horietatik kanpo gelditu delako. Erizpide-kontua besterik ez da, jakina. Baina, juxtu herri-literaturan lekutu dira harrerera-modu literario baten barnean hartu diren mezurik gehienak, historikoki behintzat. Hauek badira bitzita literarioa indartsuena izan dutenak, zertan baztertu? Ez al dira ba literario-moduan funtzionatu dutenak?

Zalantzarik gabe eta lerro hauetan azalduz joan denarekin bat eginaz, euskal literaturaren historiek ez zeukaten zertan lekuri edo leku zabalagorik eskaini herri-literatura honi. Hamaika ikuspegi zilegiztatzen dute horrelako jokabidea: literaturaren barne-ezaugarrieci atxekitakotzat jotzea ida-tzia izatea<sup>5</sup>, eginkizun-

<sup>5</sup> Hainbat ikuspegitan igorpen-bidea funtsezko erizpidea izan da literaturaren mundua zedarritzerakoan. Ahozko munduak eman dituen mezu itxi horiek literariotzat jotzea ala ez eztabaidagai bizia izan da eta oso aurkako diren jarrerren erakusle. Erizpide batzuk abiapuntu, literatura-

modu desinteresatu bati atxekitzen zaizkion sorkuntzen barrutiak adierazten duenak baino literaturaren ikuspegi entziklopedikoagoa abiapuntu izatea<sup>6</sup>, idazlan haundizat edo maisu-idazlantzat jo direnak bakarrik jasotzea etab. Honenbestez, goian egindako galderen bidez ez da bilatzen zerbaiti gaizki erizten zaiola adieraztea, nola beste hau azaltzea: euskal historian sortu badira mezu batzuk berehalako helburuztat hartzailearen jokabideak aldatzea ez zutenak, zeregin desinteresatu moduan jaso direnak edo olgeta eta gogozko denborapasaz harantzako jomugarik gabeak... harreman-modu literarioaren barnean hartu direnak, behar literarioak ase-tzeko tramankulu gisa erabili direnak, *funtzio* hau bete dutenak; landuak ez izanda ere, bete duten funtzio horrek ez ote dien legezko-tasunik ematen literaturaren errainuan bizi izateko. Gaur egun ikuspegi «desideologizatu»<sup>7</sup> batetik, ikuspegi ez-nozional batetik begiratuta, epai-kritikak alde batera u-tzita, ez ote zilegi on/txar izan/ez izan bikoteetan kokatu gabe, funtzionatu/ez funtzionatu bikotera igarotzea eta oinarri hauen gain eraikitzea euskal literaturari buruzko berbaldia?

Aldiz, batipat, behar erlijioso eta jakintzazkoak asetzeko erabili diren idazlan haiez bete dira horietako zenbait historia. Idazlan hauetako askori, edo gehienei, idazleek sorketa-garaian izan zituzten asmo eta sortu ziren garaiko hartzailegoak irakurtzerakoan erabili zuen errejimenaz landa, irakurketa literarioa zilegizatzeko zerak ez zaizkie falta. Beste modu batera esanda: testu horien gaur egungo harrera-modua ez zaio zertan egokitu behar nahitaez beren garaian izan zuten harrera-moduari; izan ere, komunikazio-mailan irakurlea den partaide aldakorrak objektuaren aurrean jarrera-modu desberdinez kokatzeko lizentzia eta ahalmena bait du eta horrela, egilearen asmo, nola sortutako tramankuluari ustez eman zion ezaugarritzeta-modua, hala igorpen-helburu zuen harrera-modua iraultzeko bitartekoak martxan jarri.

Jakina, ez da aski harrera-modu-jarrera bat martxan jartzea, baizik eta derri-gorrezko da halako bihurkuntza eragin dezaketen elementuak bere baitan eramatea. Berez, fikzioaren barrutitik kanpo gelditzen den euskal literaturaren sailen batek galga honetako bihurkuntza bultzatu ezinik ez luke izango, hartarako beharrezko den bidea egin ezker.

Aukera honek euskal idazkeraren harreran bide berriak irekitzen ditu, ikuspegi hau abiapuntu harrera-modu literarioak ez bait du zertan murriztu fikziozko berbalditara, fikziozkoak ez diren hainbat berbaldi sortu eta bizi izan ziren sistematik atera eta beste sistema batean funtzionatzeko modua ez du baztertzen. Honela bada, sistema batean lekutu ziren testuak «berreskuratu» eta beste sistema batean ere funtzionatzeko ahalmena izango lukete.

ren esparrutik kanpo utzi da hainbat azterlariren luman. Urrutiago joan gabe, Lázaro Carreterek mezu literarioa mugatzeko erabili duen *mezu literalaren* kontzeptuaren eskutik literaturaren barrutitik at geldituko litzateke «ahozko literatura». Ik. LAZARO CARRETER, Fernando: «El mensaje literal» in *Estudios de lingüística*, Editorial Crítica, Barcelona, 1980, 149-171. orr.

<sup>6</sup> Saint Maur-eko beneditarrek XVIII. mendean hasi zuten literatura frantsesaren historia da ikuspegi oso entziklopediko baten erakuskarririk behinenetakoa.

<sup>7</sup> «Desideologizatzea» proposatzea bera ideologia bada ere.

Dena den, planteamenduaren gakoa ez da bideratzen hainbeste testuak «berreskuratzeko» bideak zabaltzera, euskal literaturari gorputz handiagoa ematea helmugatzat hartuta, nola ikuspegiak erlatibizatzen. Alegia, ikuspegiak duen garrantzia azpimarkatzera, eta azken batez, ikuspegi konkretu bat hobestera: literaturatzat jo dezakegula, literatura legez hartzen dugun, edo har dezakegun, berbal-di oro.

Literatur teoriak zabaldu ditu bideak koordenada hauen barnean literatur gertaerara hurbiltzeko. Hurbilpen-modu honetan nabaria da gizakia ikusmiraren erdigunean jartzen dela. Mezuak bere baitango balio hutsa galdu egiten du norbaiti zerbait esaten dion neurrian irabazteko, azpi-azpian mota honetako gogoeta bati erantzungo balitzaio bezala: zein mailatako garrantzia har dezake izan ala ez izan kategoriak eta izan dena edo dena ona ala hain ona ez izateak, landua ala hain landua ez izateak... baldin eta gizakiari baliagarria izan bazaio, honen beharrei erantzun badie, goz hartu baditu... eta, azken batez, zerbait esan badio.

### 3. Harrera-jarrera: harreman literarioen eraketan muga-hausle

Literaturari buruzko ikuspegiak, tramankulu batzuen azterketa abiapuntu sistematizatzen den ikuspegiak, ezartzen du literaturari buruzko berbaldia. Gaur egun behintzat, literaturaren esparru irristakorrean zerbait baieztatu badaiteke, zera da: ikuspegi anizkertasuna. Literaturari buruzko ikerketek erakusten duten pluraltasuna nabaria da, eskola eta korrante desberdinak aldeberean bizi direla begi bistakoa da. Ez dira zehazki bilakaera biologikoaren menpe dauden mugimenduak eta honenbestez, azterketa-ikuspegi oso desberdinak zilegiztatzen dituzte ezarritako oinarrien arabera.

Jakina, eztabaidagai izateak, literaturari buruzko berbaldiari oinarriak aurrez jarri beharrak, ez du ukatzen literatur mezua den bizitza, ezta ere, aurrez ezarritako koordenada batzuen barnean literaturari buruzko berbaldi bat eratzea.

Mezua-hartzailea harremanak oinarri eraikitzen den hurbilpen-modua hobetsi da, hartzailearen esku utziaz harrera-modu bat edo beste erabakiko duen jarrera hartzea, jasotzera doan objektu horrek horretarako bidea ematen duen neurrian. Dena den, hartzailea zeinuz beteriko munduan bizi da eta hemendik kokatzen da mezua aurrean, horko hitzak, esaldiak... iradokitze-indarra eta zentzua hartzen dute hartzaile horrek ezagutzen duen munduaren arabera. Hau da, hartzaileak bere historia propioa, bere munduaren ezaguera darama aurrean duen mezura.

Azken batez, literatur objektua zeinuz beteta dagoen mundutik sortzen da, zeinuz beteta dagoen mundurako. Badu igorle bat, igorpen-bide bat, hartzaile bat... eta neurri handiago edo txikiagoan funtzionatzen edo barneratzen den komunikazioa eratzen du, modu batera edo bestera hartzen dena, nahiz eta aipatutako komunikazio-ataletan zenbait, historiaren norabideen menpe egon. Hartzaile-



goa denboraren joanean aldatu egiten da, igorpen-bidea alda daiteke, (kantu homerikoak lekuko eta, orohar, ahozko mundutik testuratu diren ekintza ritual guztiak), harrera-modua alda daiteke... baina, edozein une historikotan gauzatzen dira, modu batera edo bestera.

Modu honetako planteamendua erabiltzea euskal literaturara hurbiltzerakoan errentagarria ez- ezik, egokia ere izan daiteke. Euskal gertaera literarioa aztertzeko bide aproposak izan daitezke, ikuspegi ontologistatik urrunduz, literaturara den komunikazio-ekintza horretan, ekintza hori eratzen duten gainontzeko parte hartzaileekin harremanean mezua arakatzan duten ikuspegi haiek. Meziek literariotasuna adierazten duten ezaugarri esentzialik ote daramatenez galdetu gabe, planteatu ere egin gabe; are gehiago, nahita ahantziaz eta mezu horiek nola funtzionatu duten itaunduaz, euskal literaturaren ikuspegi orekatsua eskain daiteke. Hau da, denboraren joanean aldatu gabe edo ezer gutxi aldatuaz, igorpen-bidearen arabera, idatzia ala ahozkoa, irauin duten meziek nola funtzionatu duten adieraziaz. Atzerago azaldutako ideiak berriro ekarri: literatura kontzeptua nolabait autodeterminatuz joan da eta gaur egun, zilegi zaigu talaia «funtzionalago» batetik begiratzera, zer da galdera, nola funtzionatzen du galderagatik ordezkatuz.

Begi bistakoa da, planteamendu honek ez duela ukatzen mezuaren azterketa eta zenbaitetan, beharbada ez beti, erabilgarriak izango direla ikuspegi ontologistatik literatur mezua ezagutzeko eginiko ekarriak, azken batez, goraxeago esaten zenez, mezua komunikazioaren partaide da, partaide garrantzizkoena ere izan daitekeena, eta honenbestez, aztergai.

Halako erreparo bat jarri zaio mezu-azterketan ikuspegi ontologistatik eginiko ekarriak beti erabiltzeari eta nolabaiteko argitasunak eskatzen ditu. Gogoeta horiek testuen gain egin dira, sarri askotan, gehienetan ez esateagatik, testu oso landuen gain, eta ez da falta izan, aitzitik, aski arrunta izan da, literaturari buruzko sistematizazio-lana mugimendu literario bat oinarritzat hartuta egitea. Errusiar Formalismoak Futurismoarekin erdietsi zuen sinbiosira heldu gabe ere, bada loturarik literatur teorikile eta mugimendu literarioen artean. Mesedegarri suertatu diren elkar-lanak izan badira ere eta praktika literario konkretu bat abiapuntu, muga horiek gainditzen dituen eginkizun literario baterako baliagarriak diren erizpideak badakartzate ere, agian, beti ez dira gai muga oro hausteko.

Literatur mintzaira objetuen ikuskera singularra eskaintzen duena bezala jo da, mintzaira desbideratuz, zero mailatik urruntzen den mintzairatzat, mintzaira konnotatibotzat.... eta, zinez, testu ugari erakutsiko lukete ezaugarri horien konzentrazioa beren orrialdeetan. Baina, zilegi ote ikuspegi horiek bitarteko, testua euskarri izanda ala izan gabe, ahozko igorpena ezagutu duten eta harrera-modu literario baten barnean hartu diren euskal mezu itxiei —eta ez euskarazkoei bakarrik— hurbiltzea? Ez ote dago izugarritzko desegokitzapenean erortzeko arriskua?

Jakina, aipatu ditugun ahozko mezu itxi hauek eguneroko ihardunaldietan jalgitzen den objetuen ohizko irudia baino singularragoa emango dute, mintzaira desbideratuagoa, bigarren mailako esanahiak atzematea zilegiztatzten duena, esanahi anizkorragoa.... baina muga batzuen barnean. Noski, testu literarioak ere baditu mugak; izan ere, aipatu baliabide horien erabilera azken mugetaraino eraman eta oinarri denotatibo-erreferentzial batekiko lotura oro zeharo hausten badu eta mundu erabat itxia, hermetikoa sortzen badu, komunikazioa eten eta norbaitengana heltzeko bidea apurtzen bait du. Hala ere, ahozkoaren mugak estuagoak dira. Ezin dezake mintzaira irauli testuaren galga berean, ez modu berean, komunikazioa etetzea askoz errazagoa delako, eta azken finean, bakoitzak bere eremu, jokamolde, egituratze-modu, iruditegi, aipamen, ezaguera-mota etab. dituelako. Hitz batean, elkarrengan eragin badezakete ere, bakoitzak bere konbentzioak ditu.

Izan ere, ahozko mundutik sortutako mezu itxiak eta idatzitik sortutakoak zenbaitetan antzera funtziona badezakete ere, behar literarioak asetzeko jasotzen direnean, esate baterako, bakoitzak bere konbentzioak ditu, eta honenbestez, konbentzio horiei egokitzen zaien azterketa-erizpideak eskatzen ditu.

Mintzaira-mailari eta bere eraketa-moduari dagokion arazoa da. Kritika-maila abiapuntu, bataren eta bestearen konbentzio-sistematizazioak agerian uzten duena zera da: bi sistema direla. Ahozkoa eta idatzia bi mundu dira, bi sistema, erabilera-mailarik zabalenean edo hemen egin den erabilera hertsiaigoan, baina, bukatuko genuke esanaz hemen egin den erabilera hertsiaigo honetan elkargune bat aurkitzen dutela: nahiz bata eta nahiz bestea harrera-modu literarioaren barnean har daitezke. Harreman literarioak eratzeko ahalmenak ematen die sistema-maila desberdinak itxuratzeak ukatzen dien batasuna.